

COVID-19 NEWSLETTER

Errusia 2020/06/03



INPAKTU EKONOMIKOA

Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an
% -3 eta % -10 bitartean

Errusiako BPG nominala duela urtebete baino % 28 txikiagoa izan zen apirilean. BPG erreala % 20 murriztu zen

Inflazioa apirila
% 3,1

Zerbitzuetako PMI indizea maiatzaren 7an /
Industriakoa ekainaren 1ean
12,2 / 36,2

Langabezia apirilean
% 5,8
(Langabetu kopurua 2,09milioi pertsonakoa da 2020ko ekainaren 1ean)

Kanbio-tasa EUR/RUB: 1 EUR = 77,63 RUB (% 9,85 handitu da otsailetik (1 EUR = 69,98))

Inpaktua sektore industrialetan


Industriako PMIa 36,2 punturaino igo zen maiatzean, apirilko adierazlea (31,1) gaituz. 1997ko irailetik hona izandako jaitsiera azkarrena ekoizpen eta salmenta arloetan

⬇️ **Automozioa:**
Ekoizpena martxoaren amaieran eten zen bi arrazoi nagusigatik: berrogeialdiagatik eta Europatik datozen osagaien hornikuntza ezagatik, baina apirilaren bigarren erditik aurrera eta maiatzaren hasieran, fabrikatzaile guztiak berriro ekin zioten ekoizteari. Autoen salmentak ia % 73 gutxitu ziren apirilean

✅ **Aeroespaziala:**
Hegazkinak fabrikatzen dituzten eta estatuarekin kontratuak dituzten enpresa guztiak lanean hasi ziren berriz apirilaren 22an

✅ **Energia:** sektore hau estrategikoa da, eta enpresa energetikoek laguntza-programak jasotzen dituzte ez-ordaintzei aurre egiteko

✅ **Maiatzaren 12tik aurrera, posible bada, jarduera berraktibatuko da ekonomiaren oinarriko sektoreetan, besteak beste, eraikuntzan, industrian, nekazaritzan, komunikazioan, energian eta meatzaritzan. Lanean jarraitzeko edo berriz hasteko baimena lortzen duten enpresek koronabirusa detektatzeko testak egin beharko dizkiete, gutxienez, langileen % 10ari. Gainera, langileek maskarak eta eskularruak erabili beharko dituzte, ez badute bulego isolatuetan lan egiten**



Inpaktua zerbitzuetan

Zerbitzuetako PMI indizeak 2001eko urrian hasi zen azterlan honen historiako beherakada handiena erregistratu du enpresa-jardueran

⊘ **Ostalaritza sektorea, turismoa eta entretenimendua** merkatu-gaiak garraiatzeko hegazkin komertzialetan

Ostalaritza eta entretenimendu sektoreak itxita daude. Ekainaren 1etik aurrera, eskualdeek erabaki dezakete hotelak ireki ala ez, kontuan hartuz egoera epidemiologikoa eta zorrotz betez Rospotrebnadzor erakundeak agindutako arau guztiak. Neurri hori berdin aplikatzen zaie hotel, pensio eta oporzaleentzako beste ostatu batzuei

⬇ **Autobusak eta trenak**
Zerbitzuak murriztu egin dira. Baimen digitalak eman dira Mosku hiriburuan eta Mosku eskualdean eta beste hainbat eskualdetan joan-etorriak egiteko garraio publikoan eta pribatuan. Maiatzaren 12tik aurrera derrigorrezkoa da maskarak eta eskularruak erabiltzea Moskuko garraio publikoan

⬇ **Aireko garraioa**
Zerbitzu minimoak eskaintzen dira, eta jarduera asko murriztu da. Aireko Garraioaren Agentzia Federalak baimena eman die zazpi aire-konpainiari

ETeen jarduera neurtzen duen RSBI (Russia Small Business Index) indizea 2014tik izandako maila baxuenetara jaitsi zen apirilean

Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ 2020an petrolio upelaren prezioa 20 \$-eraino jaitsiko da eta Errusiako gobernuak egoera horretarako prestatzen ari da: mailegu federalen bonuak ugarituko ditu aurrekontuko defizita konpentsatzeko
- ❖ **Interes-tasa: % 5,5**
- ❖ Errusiako Banku Zentralak 1,5 milioi errublo jaulkiko ditu NWF (National Welfare Fund) funtseko dirua ez gastatzeko



EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Aurrekontua

- ❖ Aurrekontuan **3 bilioi errublo gorde dira** krisia gainditzeko neurriak inplementatzeko eta koronabirusari aurre egiteko.
Ekainaren 2an aurkeztu zen Errusiako ekonomia berroneratzeko plana, zeinaren arabera gastu kopurua % 10 murriztuko baita (8 bilioi errublotik 7,3 bilioira). Kalkulatu da 700.000 milioi errublo banatuko direla laguntza sozialetan, 1.300 milioi errublo ETEei laguntzeko, eta 2.200 milioi errublo azpiegitura kostuetarako. Kopuru horiek beren baitan hartzen dituzte aurrez deklaraturako laguntzak eta proiektu nazionalerako funtsen zati bat. Ez dago programa garesti berririk. Plan honen helburua da diru-sarrera errealek etengabe handitzea, langabezia % 5etik behera jaitea, eta urteko BPGa % 2,5 handitzea 2021 amaierarako

Neurri fiskalak

- ❖ 6 hilabete atzeratu da zerga guztien ordainketa (BEZa izan ezik)
- ❖ Krisiaren ondorioak gogorren jasan dituzten enpresek ez dute zergarik ordaindu behar (BEZ izan ezik) 2020ko bigarren hiruhilekoan
- ❖ Funts sozialetarako aseguru-ekarpenak 6 hilabete atzeratu dira ETE eta mikroenpresen kasuan
- ❖ Gizarte segurantzako kuotak murriztu egin dira ETE eta mikroenpresentzat. Gutxieneko soldata (12.130 errublo) baino handiagoak diren soldaten kasuan, aseguruen primak % 30etik % 15era murriztuko dira
- ❖ Autonomoei 2019ko errentaren gaineko zerga itzuliko zaie
- ❖ Autonomoek gutxieneko soldata baten pareko kapital fiskala jasoko dute, eta beraz, 2020ko zergak ordaindu ahal izango dituzte



Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)



- ❖ Mailegu geroratuak gehien kaltetutako sektoreentzat 6 hilabetez
- ❖ Ekainaren 1etik aurrera, proposatu da mailegu-programa bat abiaraztea koronabirusaren ondorioak jasan dituzten enpresentzat. Mailegu-hartzaileak tasa abantailatsua izango du: % 2koa. Hortik gorako guztia Estatuak ordainduko du

Lan-indarra



- ❖ Lan poltsaren **urrutiko erregistroa** (araudiz ezarritako betebeharra da Errusian)
- ❖ **Langabeziagatik prestazioak** gutxieneko soldataren adinakoak izango dira, hau da, 12 mila errublo baino gehiago (3 hilabetez)
- ❖ Laguntza-neurriak enpleguak salbatzen dituzten enpresentzat izango dira nagusiki



MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ Merkatu-gaien garraioak berdin jarraitu du lanean
- ↓ Barneko hegaldiak eta burdinbideetako zerbitzuak izugarri murriztu dira, baina badaude gutxieneko zerbitzuak

Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ **Itxialdia:** “Lanik gabeko” aldia maiatzaren 12an bukatu da (65 urtetik gorakoentzat izan ezik). BAINA: eskualdeetako buruek eskubidea dute tokian tokiko murrizketak aplikatzeko. Moskuren kasuan, aldi hori ekainaren 15era arte luzatuko da “industria ez produktiboentzat”
- ⊘ **Unibertsitateak eta eskolak itxita daude**
Beste neurri batzuk:
 - Atzerritik itzuli ezin duten errusiarrentzako hegaldiak berrabiarazi dira
 - **Neurriak desberdinak dira eskualde batetik bestera**, eskualde bakoitzaren esku baitago erabakitzea zein blokeo neurri aplikatu “pertsonen osasuna, segurtasuna eta ekonomiaren jasangarritasuna bermatzeko”
 - Moskuk eta beste eskualde batzuek baimen digitalen sistema ezarri dute hirian joan-etorriak egiteko



Mugetako egoera

- ⊘ **Mugak**
Mugak itxita daude. Ibilgailu, tren eta oinezkoen kontrolerako postu guztiak eta itsasoko mugak itxita daude martxoaren 30etik
- ↓ **Aireportuak**
Hasieran, Errusiako aireportuetako trafikoa % 89 gutxitu zen, eta gero % 95